

255/2024 EBAZPENA, otsailaren 9koa, Arabako Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari-gerentearena, zeinaren bidez Arabako Erakunde Sanitario Integratuko Prebentzio Medikuntzako eta Osasun Publikoko Zerbitzu Sanitarioko Burua hautatzeko deialdiko onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda eta Balorazio Batzordearen osaera onartzen diren.

AURREKARIAK

Arabako Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari gerentearen urriaren 18ko 2201/2023 Ebazpenaren bidez, deialdi publiko bat egin zen Arabako Erakunde Sanitario Integratuko Prebentzio Medikuntzako eta Osasun Publikoko Zerbitzu Sanitarioko Burua izeneko lanpostua betetzeko lehiaketa-sistemaren bidez (2023ko azaroaren 6ko EHAA 211 zk. eta 2023ko azaroaren 13ko EAO 271 zk.).

Ebazpen horrek eskabideak aurkezteko 15 egun balioduneko epea ezartzen du Ebazpena dagozkion aldizkari ofizialetan argitaratzen den azken dataren biharamunetik zenbatzen hasita. Epe hori 2023ko abenduaren 4an amaitu zen.

Arabako Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari gerentearen abenduaren 20koa 2949/2023 Ebazpenaren bidez, prozesuan onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartu zen.

Horiek horrela, ebazpen honen bidez, onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda eta Balorazio Batzordearen izendapena argitaratzen dira.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Deialdian ezarritakoaren arabera, onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrendari erreklamazioak aurkezteko epea amaitutakoan, Arabako Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari gerenteak ebazpena emango du onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda onartzeko, eta, baztertuen kasuan, baztertzeko arrazoia adieraziko du. Horrez gain, agindua emango du Ebazpena Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko webgunean argitaratzeko.

Era berean, Balorazio Batzordearen izendapena argitara emateko aginduko du.

Adierazitako guztiagatik, langileen alorrean indarrean den legediak aitortzen dizkidan ahalmenez baliaturik, Osakidetza Estatu Sozialak arautzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuaren 15.1 e) artikuluari jarraikiz (azaroaren 14ko EHAA 219. zk.) eta lehiaketa arautzen duten oinarriak betez,

EBAZTEN DUT

Lehenengoa.- Prebentzio Medikuntzako eta Osasun Publikoko Zerbitzu Sanitarioko Burua izeneko lanpostua betetzeko lehiaketako hautagai onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda onartzea. (I. eranskina)

Bigarrena.- Balorazio Batzordearen osaera onartzea. (II. eranskina)

Hirugarrena.- Ebazpen hau Osakidetzaren webgunean argitaratzea.

Laugarrena.- Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Osakidetzako Zuzendaritza Nagusiari, hilabeteko epean, Ebazpena argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita.


Vitoria-Gasteiz, 2024ko otsailaren 9a.



KUDEAKETAKO ZUZENDARITZA
DIRECCIÓN GERENCIA

Arabako Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari gerentea,

JOSÉ MARÍA PÉREZ RAMOS.

I. ERANSKINA

ARABAKO ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUKO PREBENTZIO MEDIKUNTZAKO
ETA OSASUN PUBLIKOKO ZERBITZU SANITARIOKO BURUA IZENENKO
LANPOSTUA.

ONARTUEN ETA BAZTERTUEN BEHIN BETIKO ZERRENDA

Onartuen behin betiko zerrenda:

- Susana Páramo De Andrés and.

Baztertuak:

- Inor ez.

Baztertzeko arrazoia:

- 1- Ez da langile finkoa eskatutako kategorian.
- 2- Ez dago jarduneko zerbitzuan eskainitako lanpostuaren lanbide-talde bereko kategorian.
- 3- Ez du titulazioari buruzko eskakizuna betetzen.
- 4- Ez du lan-esperientziari buruzko eskakizuna betetzen.
- 5- Eskabidea epez kanpo aurkeztu da.
- 6- Bestelakoak.

II. ERANSKINA

ARABAKO ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUKO PREBENTZIO MEDIKUNTZAKO
ETA OSASUN PUBLIKOKO ZERBITZU SANITARIOKO BURUA IZENEO
LANPOSTUA.

BALORAZIO BATZORDEA

Batzordeburua:

Titularra: Lander HIJONA MURUAMENDIARAZ jn.

Ordezkoa: María Lourdes VIVANCO GÓMEZ and.

Lehenengo batzordekidea:

Titularra: María Esther CUESTA GARCÍA and.

Ordezkoa: Edurne OMAECHEVARRIA LEGARRA and.

Bigarren batzordekidea:

Titularra: Iciar LANZETA VICENTE and.

Ordezkoa: Alejandra Judith CHAMORRO CAMAZÓN and.

Hirugarren batzordekidea:

Titularra: María del Henar REBOLLO RODRIGO and.

Ordezkoa: María Jesús HERNÁNDEZ NAVARRETE and.

Laugarren batzordekidea:

Titularra: Jorge TABOADA GÓMEZ jn.

Ordezkoa: Margarita VICIOLA GARCÍA and.

Idazkaria:

Titularra: María José PUJANA URIARTE and.

Ordezkoa: María Pilar SÁNCHEZ GARDUÑO and.